

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.03.26

Tolosako Udaletxean, 2014ko martxoaren 26an, arratsaldeko 7,30tan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Ibai Iriarte San Vicente, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 19:30 horas del día 26 de marzo de 2014, se reúne el Ayuntamiento Pleno, en Sesión Ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia del alcalde, Ibai Iriarte San Vicente, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:

Ibai Iriarte San Vicente

Bertaratutako zinegotziak:

Lore Agirre Zipitria
Asier De los Rios Soraluze
Igor Ezenarro Balda
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Mikel Arreseigor Astibia
Rosa Maria Urkola Irigoyen
Jon Koldobika Arsuaga Artola
Nerea Letamendia Belloso

Olatz Peon Ormazabal
Ainhoa Etxeberria Aranburu
Jon Aldazabal Etxeberria
Jokin Azkue Arrastoa
Nuria Carbonell Miranda
Miren Ezkiaga Etxezarreta
Jose Ignacio Asensio Bazterra

Ez bertaratuak:

Iñaki Irazabalbeitia Fernandez

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Behin-behineko Kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

Eguneko gai zerrenda

1.- Ondorengo akta onartzea:

2014ko otsailaren 25eko Osoko Bilkurakoa

Orden del día

1.- Aprobación de la siguiente acta:

Sesión Ordinaria de 25 de febrero de 2014.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.03.26

2.- Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:

2014ko otsailaren 3tik 28ra (184/2014-327/2014).

3.- Hasierako onarpena: Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorren aldaketa puntuala: "15.4 Inmakulada Ikastetxea" azpiesparrua.

4.- Erregu-galderak.

2.-Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:

Del 3 al 28 de febrero de 2014 (184/2014-327/2014).

3.- Aprobación inicial de la Modificación puntual del Plan General: Subámbito "15.4. Inmakulada Ikastetxea."

4.-Ruegos y preguntas.

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

A continuación se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

1.- Ondorengo akta onartzea:

2014ko otsailaren 25eko Osoko Bilkurakoa

1.- Aprobación de la siguiente acta:

Sesión Ordinaria de 25 de febrero de 2013.

Ondoren, izenburuan aipatutako akta, aho batez, **onartu** da.

2.-Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:

2014ko otsailaren 3tik 28ra (184/2014-327/2014).

2.-Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:

Del 3 al 28 de febrero de 2014 (184/2014-327/2014).

Alkatetzak, 2014ko otsailaren 3tik 28ra bitartean (184/2014-327/2014) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Udalbazkideak jakinaren gainean geratu dira.

3.- Hasierako onarpena: Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorren aldaketa puntuala: "15.4 Inmakulada Ikastetxea" azpiesparrua.

2013ko abenduaren 16an, Inmakulada Ikastetxeak ondoren zehazten den Proiektua aurkeztu zuen, "Hiri Ordenazioko Plan Orokorren Aldaketa Puntualaren Proiektua, "15.4. Inmakulada Ikastetxea" azpiesparruari buruzkoa, Ikuska Ormazabal Otaño arkitekta egindako testua, hain zuzen ere.

Hortaz, aztertu ondoren planari buruz egindako txosten juridiko eta teknikoak, eta Hirigintza

3.- Aprobación inicial de la Modificación puntual del Plan General: Subámbito "15.4. Inmakulada Ikastetxea."

El 16 de diciembre del 2013 el centro de enseñanza Inmakulada presentó el Proyecto de modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana relativo al subámbito "15.4 Inmakulada Ikastetxea" redactado por la arquitecta Ikuska Ormazabal Otaño.

Vistos los informes jurídicos y técnicos elaborados al respecto y el dictamen favorable emitido por la

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.03.26

batzordeak 2014ko martxoaren 14an emandako aldeko diktamena, Udalbatzak, aho batez,

comisión de Urbanismo de fecha 14 de marzo del 2014, el Pleno del Ayuntamiento, por unanimidad,

ERABAKI DU:

Lehen: Aurkeztutako proiektua Plan Orokorren aldaketa puntual bat denez, aurrerakina ez tramitatzea.

Bigarren: Hiri Ordenazioko Plan Orokorren Aldaketa Puntualaren Proiektuari, "15.4. Inmakulada Ikastetxea" eremuari dagokiona, eta Ikuska Ormazabal Otañok idatzitakoa, hasierako onarpena ematea.

Hirugarren: Espedientea jendaurrean jartzea hilabeteko epean, azken argitalpenetik kontatzen hasita, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, iragarki taulan eta hedadura gehien duten egunkarietan dagokion iragarkia argitaratuz.

Halaber, sektoreko eskumenak dituzten herri administrazioei erabakiaren berri ematea, proiektuari buruzko dagozkion txostenak egin ditzaten.

Laugarren: Erabaki honen eta eraikigarritasun haztatua gehitzeak eragindako zuzkidura-karga kentzeko kalkuluaren berri Inmakulada Ikastetxeari ematea.

ACUERDA:

Primero: No tramitar el avance porque el proyecto presentado es una modificación puntual del Plan General.

Segundo: Aprobar con carácter inicial el Proyecto de modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana relativo al área "15.4. Inmakulada Ikastetxea" redactado por Ikuska Ormazabal Otaño.

Tercero: Someter el expediente al trámite de información pública por un período de un mes contado a partir de la última publicación del correspondiente anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios y en los diarios de mayor difusión.

Asimismo, comunicar el acuerdo a las Administraciones Públicas competentes del sector para que emitan los informes oportunos.

Cuarto: Comunicar al centro de enseñanza Inmakulada este acuerdo, así como el cálculo para el levantamiento de carga dotacional derivada del incremento de la edificabilidad ponderada.

4.- Erreagu-galderak.

... Nerea Letamendia Belloso, EAJ/PNV: "Tolosa Merkat proiektuari zorianak eman zitzaizkion Eusko Jaurlaritzak eman zion sariarengatik. Baina orain jakin dugu Europar sari bat eman zaiola Tolosa Merkat-en promozioa eta publizitate kanpaina egin duen enpresari, non Tomas Mendizabal tolosarra dagoen, eta hau ere zoriondu nahi genuke."

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea: "Sariaren berri jakin genuenean Alkatetzatik gutun bat igorri zitzaion zorianak emanez, lana ondo egiten denean saritzea ondo etortzen delako."

... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ/PNV: "Gipuzkoa.net-en azaltzen da Tolosaldeko PTP-ak badaukala behin behineko onarpena eta guk ez dakigu ezer honi buruz. Ez dakigu Diputazioak egiten duen bai behin

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.03.26

behineko onarpena, bai behin betiko onarpena guri galdetu gabe. Honen berri Hirigintzan ez daukagu. Nik uste hori tratatu beharko genukeela Hirigintzan.”

- ... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea: “Hirigintzan sartuko dugu. Agian luzapena egiteko behin behieneko onarpena eman diote.”
- ... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ/PNV: “Gai honekin gu nahiko kritikoak ginen. Horren kontra gaude. Bere garaian esan genuen hor joera batzuk zeudela markatuta; Villabona aldea indartzea, Tolosari indarra kentzea. Gure garaikoa izango da agian. Planteamenduari ekarpenak egin genizkion bere garaian. Guk eskatuko genuke Hirigintzara eramatea eta hitz egitea.”
- ... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea: “1998koa da PTP-a, Euskadiko azkenekoa eta onartu gabe dagoena. Gauz asko onartu gabe eginda daude; Apatta e.a. Eta hori atzera egitea errealitatearen kontra joatea da. Landu izan da dokumentua Tolosalde mailako alkate eta hirigintzako arduradune aldetik eta luzapena eskatu zitzaion Diputazioari. Pentsatzen dut luzapen hori emango zutela, baina gu ere ez gaude honen alde. Garapen urbanistiko batzuk zentzurik ez daukate eta gutxiago, ikusita momentu honetan zein egoera urbanistikoan eta ekonomikoan gauden. Hala ere, enteratuko naiz zertan datzan informazio hau.”
- ... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ/PNV: “Bestalde, hiru pleno egin ditugu eta bi gai ekintza administratibokoak direnak pasa ditugu, beste guztiak mozioak dira. Ez dugu gai administratiborik. Nik uste egongo direla gai administratiboak plenora eramateko.”
- ... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea: “Kale garbiketaren adjudikazioaren gaia dago plenotik pasatzeko. Uste genuen pleno honetan sartuko genuela, baina ez du denborarik eman. Diru asko dago tartean eta ez dugu korrika onartu nahi. Egun gutxi barru beste pleno bat egiteko asmoa dago eta gai hau tratatzeko asmoa dago.”

Besterik gabe, gaueko zortzi t´erdietan bilera bukatutzat eman da, eta guztia nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, siendo las ocho y media de la noche, se da por finalizada la sesión, de todo lo cual yo, el Secretario, certifico.

ALKATEA

IDAZKARIA